


16 zka 1994.eko apirila

E GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



**EUSKAL HERRIKO
ITZULIA**
berriro Gasteizen



Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen dituz eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herriaren, Garraio eta Inaurugiro Saila

13-14 URTEKO NESKA-MUTILEI

KOLDO MITXELENA Institutuko ikasle talde bat gara eta egun hauetan hartu behar duzuen erabaki zailaren aurrean gure esperientziaren laguntza eskaini nahi dizuegu.

Guk ere bizi izan dugu Eskolan edo Ikastolan bukatu eta hurrengo ikasketexa aukeratu beharreko momentu hori. Orduan, galdera bat egin genion geure buruari? hamalau urte euskaraz ikasten aritu eta gero dena egina zegoen, ala jarraitu beharrean geunden? Erantzuna bapateko izan zen. Gure hizkuntza euskara zen eta dugun ingurune erdaldun honetan euskaraz mintzatzeko aukera bakarrenetarikoa bat ikasketan zegoen, beraz, institutu euskaldunera joatea erabaki genuen.

Dagoeneko lau urte daramatzagu institutuan eta egindako lanak merezi duelako ustetan zuek gurekin elkartzera animatu nahi zaituztegu, euskaraz ikasteak bi hizkuntza menperatzea ahalbideratzen duelako, ez bata ez bestea baztertu gabe; gure lau urte hauetako lanak jarraipena izan dezan nahi dugulako eta batez ere hamalau urte horiek ezin dituzulako bapatean ahaztu.

Institutoa hemen, zuen zain daukazue, ezin duzue aukera paregabe hau galdu, ez duzue hala uste?

Gasteizko **KOLDO MITXELENA**
Institutuko ikasle batzuk



BANOA BERRIRO. Azkenengo bolarada honetan egin dizkidaten galderen artean bat azpimarratu nahi nuke: noiz itzuliko zara?

Ez dago itzulera gabeko bidaiarik. Abiarakoan, bidaiariak badaki itzuli behar izango duela. Bidaiari joan denak, gau ugaritan ohe arrotzetan lo egin duenak bakarrik gozatzen du itzulerarekin. Baina benetako bidaiariak badaki, jakin, aski asetuko duen bidaiarik ez dagoela, itzulera bakoitzaren ondoren beste itteeraren bat egongo dela.

Lokarrien aurrean, geldikorrek bidaiariak duen askatasuna miresten du, haren begiek ikusiko dituzten edertasun eta apartekoak, bidaian zehar bidaiariak bereganatuko duen etengabeko ikasgoa.

Ibiltariak geldikorraren bikote-maitasuna miresten du, seme-alabek eman dezaketen poztasuna, bizitzaren gauza xumeek gozatzeko eskeintzen dituzten aukerak: liburu bat, diska bat, lagunartekoa,...

Geldikorrek haren bizitzaren preso da. Bidaiaria haren antsiarena. Geldikorraren lokarrien menpe bidaiariak ez dukete bizitzerik. Ibiltarien antsiak gabe geldi-

IKUSI ARTIO!

korrek ez dukete aurrera segitzerik.

Lerro hauen artean aurki daiteke galdera ugarien erantzuna. Baliteke, nik neronek somatzen ez dudana besterik ere egotea. Dena den, banoa.

Beste aldetik, Gasteiz euskalduntzearen borrokan ari naizen aldetik, zilegi bekit nire iritzia plazaratzea: ez dut atseginez ikusten borroka honek hartu duen bidea (agintariak ezarri digutena ote?). Euskara ikasi nahi duen jendearen motibazioa aldatu omen da. Ez omen daude arestian zeuden gogoak... Hori bakarrik aldatu al da? Galdera latza!

Gaur egun, euskara irakastea bizibide bihurtu da (horretan aritu naiz ni azkenengo hamar urteotan). Horri esker, eraman ahal izan dut aurrera nire bizitza langabeziaren mamua atzetik sentitzen dugun honetan. Profesionaltasuna? Profesionalkeria? Herri ekimena, militantzia, garai batean ikas eta irakasteko zegoen ilusioa, gogoak, kezkatuta nago, duda-mudatan...

Besterik ez lagunok. Mila esker zuen adiskidetasunagatik. Ez dut ohizko «ea lasten ikusten dugun elkar» hori esango, baina Ameriketako bideetan barrean ene gogoan izango zarete.

Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak kontutan hartu. Izan untsa.

Nandus

Fernando Presa, Nandus, hilabete honetan Ameriketara abiatuko da Alaskatik Tierra del Fuego rainoiko tartea bizikletaz egin asmoz. Bi urte inguru behar izango ditu horretarako.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Joseba Gorostiza **Erredakzio-batzordea:**

Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo **Hizkuntz egokitzailea:** Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo **Publizitatea:** Martin Rezola **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onaindia **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik

BERTSOAK



MIKEL ESKUDERO

ASTE SANTUA

I
Kristo hil zela bi mila urte ospatzen kristau jatorrak agure, eta gure atsoek dituzte egun maitakorrak Baina gu hoiien hitzen aurrean beti izan gara gorrak Gainera orain zaharrenganako beti jarrera gogorak kristauen festa edo bestela udaberriko oporrak

II
Gazte jendeak ez du maitatzen asko eliza kontua askoz nahiago izaten dugu dantza, festa ta kantua Hola ibiltzeak beti izan du guretzako enkantua bizioekin nahiago dugu guk egitea paktua Ez da izaten oso santua guretzat aste santua

APIRILA

“ Trumoi-danbadak eztu apirila galtzen: il ontako maastia ez da errex saltzen”

“ Pazkoak euritsu gariak ogitsu”

“ Apiril lore errearen pare”



POSTARIAK EKARRITAKOA



EUSKARAK jasan duen egoera larriak bultzaturik euskaltzalegoaren-gana jotzen dugun gehienetan laguntza eske izaten da. Oraingoan, berriz, pozez zuzentzen gara zuengana, eskerrak emateko asmoz, gainera.

Eskerrak Euskal Herriko 138.000 sinatzaileoi eta Araban euskararen alde agertu zareten 12.500 hiritarrei. Es-

mila esker GASTEIZ



kerrak Gasteizen AEKren aldeko aldarrikapena sinatu duzuen 7.000 euskaltzaleoi.

Helduen Euskalduntzeak euskarak bizirik irauteko duen garrantziaz oharturik, milaka izan dira diskriminazioaren aurka agertu direnak; milaka Bilboko manifestazioan «Euskara ikastea denon eskubidea» dela aldarrikatu zutenak; milaka administrazioa eta herri ekimenaren elkarlanaren aldeko jarrera aktiboa adierazi digutenak.

Zuoi esker, helduen euskalduntzeari ate berriak irekiko zaizkiolakoan gaude; zuei esker, berreuskalduntzeak behar dituen oinarri berriak guztion artean eztabaidatzeari ekingo diogulakoan gaude.

Aurrerantzean ere, zuen laguntza behar izango badugu ere, gaur gure eskerrik beroena ematera gatozkizue. Mila esker.

Gasteizko AEK

GARNICA



FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

URTE BERRIA negu gorrian ospatzen badugu ere, zeresanik ez, benetako urte berria udaberriarekin batera somatzen dugu eta beraz, une aproposa deritzot sail berri hau abian jartzeko. Nire esku utzi duten txoko honetatik zenbait gogoeta egingo ditut hileru zeruko gertakizunak kontuan izanik. Izan ere, gizon-emakumeok, izadiko osagaiak garen aldetik, zelula gisa aritzen gara osotasun baten barruan.

ZERUTIK LURRARI BEGIRA

Zelula txikiak baina ezinbestekoak gorputz kosmikoan. Gizakia ez da izaki berezi eta isolatua, gauza guztien gain dagoena. Lotuta dago ortziko edozein lekutan hari txikiena mugituzendenean ere, zelula bakoitzean eta guztietan isladatzen da horren eragina.

Beraz, natura-legeen arabera jokatzeko dugun neurrian eta izadiko erritmoei bat egiten dugun neurrian, orekan egongo gara gure inguruarekin eta gure baitan ere. Sail honek, bada, zeruko inguruabar horiek aztertu eta erritmo horiek agerian uztea izango du helburu geure eguneroko bizitzan erabiltzeki begira.

Dudarik gabe, datorkigun urtea ez da inondik ere arrunta izango. Egia esan, hainbat gertaera berezi izango ditugu ikusgai gure zeruetan, aspaldian edo sekulan ikusterik izan ez direnak. Horietatik hiru izango dira nagusi, hiruok nabarmenak eta eragin handikoak:


- Alde batetik, izar-eurijasa. Otsailetik hasi eta hurrengo bederatzi hilabeteetan kometak mordo bat "eroriko" dira zeruko sabaitik, hemezortzi alegia. Antzeko zerbait gertatu zen guda zibilaren aurretik, gure aiton-amonek ondo gogoratzen dutenez.

- Bigarrenik, eguzkiak eta ilargiak eklipse bina era-kutsiko digute: eguzki-eklipseak maiatzaren 10ean eta azaroaren 3an, eta ilargi-eklipseak maiatzaren 25ean eta azaroaren 18an. Eklipse guztiak adie-razgarriak izanik ere, maiatzaren 10eko eguzki-eklipseak (erastun-eklipsea) garrantzi berezia izango du guretzat. Eklipse hori ziklikoa denez gero ez da zaila aurrekoetan agertzean eragin zituen gertakizunak aztertzea eta ondorioak ateratzea. Eklipse horren analisi zehatza datorren zenbakian egingo dugu, baina zeuek ere baduzu ziklotasun horretatik emaitzak ateratzetik: ...1957 / 1966-67 / 1975-76 / 1985 / 1994-95...

- Azkenik, aspaldian zeruan izan den ikuskizun miresgarrienak Jupiter izango du lekuko. Uztailaren 18tik 24ra bitartean Shoemaker-Levy 9 izeneko kometak, dagoenako hainbat zatitan hautsita, Jupiterren alde ilunean joko du su- eta argi-tunpa ikaragarria sortuz. Zer gertatuko den ezin da guztiz aurreikusi baina ezpairik gabe aldaketa garrantzitsuak eragingo ditu bai Jupiterren eta bi bere ilargietan ere, eta egun horietan bi eguzki izango ditugu gure buru gainean.

Hiru gertaera horiek ondo ulertu beharko ditugu, urte onetako arazoak eta egoera orokorra markatzen baitigute geure eguzki-sistemari eragiten dioten neurrian. Datozen hilabeteetan beraz, horiekin batera beste hainbat gorabehera aztertu eta interpretatuko ditugu, baina bitartean, eutsi gogor, aldaketa nabarmenak ikusi eta bizi beharko baititugu.

Iñaki Gauna



Shoemaker-Levy 9 kometaren zatiketa. Goitik behera: 1993eko martxoak 27, apirilak 15, maiatzak 21, ekainak 12 eta uztailak 17.

**DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA**

Telefona: 23 17 13

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ





KALEA MINTZO

AZKEN BOLADA HONETAN Gasteizko alkateak hartu berri dituen erabakiotariko batek hautsa harrotu du bazterretan. Izan ere, Gasteizko Udaletxeko Erroldan lege ezkonduak ez ezik, sexu bereko edota ezkondu gabeko bikoteak ere ezarriko dira hemendik aurrera. Gasteiz Estatuan aitzindari egin duen xedapen hau zabalduko al da gure udalerritik kanpora? Ezin jakin, geroak esango du. Dena dela, GEU aldizkarikook Gasteizko kaleetatik barrena abiatu gara zenbait gasteiztarrok auzi honi buruz duten eritzia jakin nahirik

Juan Jose Kastresana



MAITANE
LARRAÑAGA
(Ikaslea)

1. Ondo iruditzen zait jende guztiak eskubide berberak izan behar ditu eta.
2. Pertsona bakoitzaren sentimenduak errespetatzea aurrerapen handia da beti, dudarik ez.



SERGIO LOPEZ
(Delineantea)

1. Ondo dago. Baina gorasoak izan ezin izango direnez, seme-alabarik duen beste bikote baten beharrean egongo dira. Ondo dago, halere.
2. Aurrera, jakina. Zenbat eta zabalagoak izan hainbat eta hobeak izango gara.



JOSU IGARTUA
(Irakaslea)

1. -Nire ustez positiboa da. Gai horretan hutsune handia zegoen. Primeran dago erabaki hori hartzea.
2. Aurrerapen handia da gisa horretako gauzak oso beharrezkoak baitira.

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Zer deritzozu sexu bereko edota ezkondu gabeko bikoteak udal erroldan hartzeari?

Horrelako xedapenen bidez aurrera ala atzera egiten du gure gizarteak?



ALMUDENA CARRAL
(Kimikoa)

1. Ez ditut erabakiaren nondik norakoak sakonki ezagutzen baina printzipioz ongi iruditzen zait.
2. Gizartea berez aurrera doa eta ez horrelako erabakiei esker. Aurrerapenak ez du inolako inposaketarik behar.



ARACELI MIÑAMBRES
(Langabea)

1. Ondo iruditzen zait. Halere, horrek Udaletxetik kanpora zabaldu beharko luke. Tristea izango litzateke Udaletxeko gauza soila eta isolatua balitz.
2. Aurrerapena da baina gehiago aurreratuko genuke beste instituzio batzuetan ere ezarriko balitz.



ANA KORANTI
(Psikologoa)

1. Oso ondo dago. Horrelako gaietarako Gasteizko alkatea oso azkarra da, oso ondo ari da. Dena dela, bazen garaia hau egiteko.
2. Noski, aurrerapena da. Alde batetik, zure lagunak eta zuk bikote bat osatzen duzuela edozein lekutan erakusteko modua ematen dizu. Bestetik, berebiziko neurria da homosexual zein lesbianeiei begira.



PLACIDO FRAIZ
(Jubilatua)

1. Primeran. Jende guztiak eskubide berberak izan behar ditu ezkondata ez egon arren.
2. Ez dakit, ni eskola zaharrekoa naiz... Baina ondo dagoela uste dut.



ANGEL MERGEDAS
(Jubilatua)

1. Oso ondo, batez ere, bere lagunmina hil eta gero erretiroa kobratu ezin duen emakumea gogoan izanez. Alargun horri ez zaio sosik ere ematen bere senar zenak gainerakook beste lan eginagatik ere.
2. Erabaki horrekin aurrera goaz. Bat nator alkateak egin duenarekin.



Zaldiaran Enparantza, 10 • GASTEIZ

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

**SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK**

Atzoko eta gaurko... KATEDRAL BERRIA

BA AL ZENEKIEN?



KATEDRAL BERRIA diogu, hala ere ideia 1862an sortu zen. 1905an, garai horretan Gasteizko apezpikua zen Jose Cadena y Eletak katedrala eraikitzea erabaki zuen eta bi urte beranduago, 1907eko abuztuaren 4an lehenbiziko harria jarri zuten. 1913an, diru arazoek lanak geldiarazi zituzten eta 1946. urtea arte ez zuten obra berriro martxan jartzerik izan. 1969an katedrala kontsagratu zuten «Maria Inmaculada, Madre de la Iglesia» tituloarekin. Argazkian, 1908an aterea, kriptaren lanak ikus daitezke.

...Dituen zortzi kapiletatik lauk Hego Euskal Herriko lau herrialdeen izenak daramatzatela?

... Lanak geldirik egon ziren bitartean, eta defizita estaltzeko lan-tresnak saldu behar izan zituztela?

...Diru arazoak zirela medio aldatu behar izan zela hasierako proiektua, zenbait dorre desagertuz?

...Katedrala dagoen lekuan Santa Brigidaren jarraitzaileek konbentu bat zutela?

...Zenbait historiagileren ustez, Katedrala eraikitzea etorri ziren langileak izan zirela ideia anarkista eta sozialistak Gasteiza ekarri zituztenak?

...Estilo gotikoa, garai haietan arte kristauaren adierazgarria zela?

ZURE IRAGARKIA
EUSKARAZ

JAKINA !!


IRAGARRI ZAITEZ
GEU GASTEIZ aldizkarian

☎ 26 25 92



Myriam Ballesteros

**amerikar
zinemarekin
lehian**



Plato bihurtu zaigu Gasteiz berriro ere zinema zuzendari gazte baten lanari esker. Oraingoan emakume bat izan da horren erruduna: Myriam Ballesterosek «Historia de un hombre malo» filmea errodatu du gure hirian. Filmaea abenturazkoa da eta amerikar produktuekin lehiatzeko prest agertu da gasteiztarra.



BUKATU BERRI DUEN

lanak banaketa arazoak izango dituela badaki Myriamek. Erdimetraientarako erosleak aurkitzea oso zaila dela azaltzen du gasteiztar honek, zinema aretoetan eta telebistetan ez baituzte horrelakoak srritan pantailaratzen; aukera bakarra beraz, zine jaialdiak dira. «Bai, baina nire filmeak 40 minutuko iraupena hartu du azkenean eta jaialdietan 30 minutu baino gehiagokoak hartu ere ez dute egiten askotan».

Arazoak arazo, Myriam pozik dago «Historia de un hombre malo» pelikularen emaitzarekin. «Erdimetraia izateko zoroen lana izan dela esan behar dut», esan du, hala ere, zuzendariak.

Erotzekoa izan da horretan parte hartu duten lagunen kopuruagatik: «Aktore asko daude eta baita figurante asko ere; azken hauek, gainera, ez dira profesionalak eta prestaketa lan luzea egin behar izan dugu». Erotzekoa ere, gasteiztarrek kontatzen duen istorio oso konplexua delako: «Horregatik ezin izan dut laburragoa egin, zerbait kenduz gero ez zen ulertuko».

Istorio konplexu horren oinarrian euskal ipuin bat dago: «Patxi Armentariaren ipuina. Oso gizon gaizto baten istorioa kontatzen du. Izan ere, gizon hau infernura eramateko hiru diabru etortzen dira lurrera baina ez dute Patxi hemendik eramatea lortzen».

Zinemagintzan egiten duen lehen lan honetan aktore eta teknikari onen lan-kidetza izan du Myriamek. Gidoia Txema Ociorena da; aktoreak berriz, Raul Freire, Karra Elejalde, Klara Badiola, Alex Angulo, Mila Espiga, Santi Ugalde, Ramon Barea eta abar luze bat izan dira. Hala ere, pena bat du Myriamek barruan, «Paco Rabal nahi nuen protagonista baina bi egunetako lana baino ez zen eta bere maila dutenek ez dute horrelako lanik egiten. Dena den, Raul Freirek oso ondo egin du lan hori».

Berak adierazi digunez, goi mailako jendearen laguntza behar zuen lan horretan; ondo lan egin dezaleela erakutsi behar zuen eta. Izan ere, luzemetraia egitea da Myriamen nahia; bere izena «La dama de An-boto». Horretarako, aldiz arazo bat dago: «Abenturazko filma da, oso garestia, beraz. Hain zuzen ere, 400 milioi behar ditut eta diru horren zati txiki bat besterik ez dudanez, artean erdimetraia egitea erabaki nu-en». Esperientzia handia duen zuzendaria da gasteiztarra baina hala ere pelikula luze bat egiten hasi aurretik bere balioa frogatu beharra sentitu du. «Nik ez nuke ezer frogatu beharko baina telebistatik zinemarako jauzia ematea oso zaila da hemen, beraz...». «La dama de Anboto» filmearen gidoia aztertu diotenean oso kritika onak jaso ditu Myriamek. «Abenturazko filmea da hau eta euskal leienda batzuk biltzen ditu: Marirena, Goñiko zaldunarena eta Aralarko San Miguelena, besteak beste». Filme honek orain arte euskal zinemagileek jorratu gabeko bide bat irekiko du.

«Hemen orain arte horrelakorik egin ez denez, batzuek beldurra dute» esan du zuzendariak. Efekto bereziak eta amerikar filmeetan agertu ohi diren panpinen ildotik dator izu hori.

Horrelako beharrak gauzak zailagotzen dituztela onartu du zuzendariak hala ere. «Amerikarrekin lehiatu beharra da gure arazorik bagusiena, nahiz eta beraiek baino askoz ere baliabide gutxiago eduki lanerako. Normala da gainera, jendea ez da tontoa eta dirau kopuru berbera ordaindu behar du ondo egindako filme bat zein mordoilo bat ikusteko». Myriamek duen esperientzia guztia telebistan bereganatu du.

Euskal zinemaren amesgaiztoa

Komunikabideek diotenez, euskal zinemagintza urrezko aroan bizi da. Myriam Ballesterosek ematen duen ikuspuntua, berriz, oso bestelakoa da. Horretan lan etiea oso latza da eta are gehiago hemen, berak azaldu duenez. «Gogorra da hau esna beharra baina hemen lan egitea Madrilen baino askoz garestiagoa da. Ondorioz, hara joan behar izaten dugu beste erremediorik ez dugulako», aitortu digu Myriamek euskal zinemagintzari buruzko irudi positiboa hankaz gora jarritz.

«Aktore gehienak konpokoak dira eta azpiegitura guztia ere Madrilen dago», azaldu du zuzendariak, «beraz, bidaiak, dietak eta materiala hara bidaltzea ordaintzea ba... pentsa ezazu!». Gasteiztarraren iritziz, hori da Euskal Herriko zuzendaririk gehienek atzerrira jotzearen arrazoi: «Medem, de la Iglesia eta beste guztiek Madrilen lan egiten dute. Juanma Bajo Ulloa da Gasteizen lan egiten duen bakarra. Oso buru gogorra da eta azkenean lortu du baina erabat erreta irten da eta ez naiz harritzen», esan eta berak ere luzemetraia egiteko Madrileran joan beharko duela aitortu du: «nahitaez, miloi askotako aldea dago eta!».

Gauzak horrela, Myriamek ez du batere argi ikusten «Euskal Zinemagintza» deitu izan den den hori zer den. «Nere ustez kasualitatea da orain zuzendari asko egotea; gure artean ez



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

MIKO
izozkiak



dago loturarik, bakoitzak gogokoen duena eta ahal duena egiten du». Hemendik kanpo lan egiteari buruz hitz egitean nolabaiteko kezka nabritzen zaio Myriami; «Euskal zinema bultzatu nahi izanez gero, laguntzak berrezkoak dira». Hala ere, ez omen da subentzioen aldekoa. «Dena den, zinemagintza indartsua balitz ez genuke laguntzarik beharko baina gaden egoeran egonda, bai», esan du konbentziturik.

Zinema egiteko moduarekin ere oso kritikoa da Myriam Ballesteros zuzendari gasteiztarra. «Inoiz dirurik izanez gero, amerikar erara egingo dut zinea, kamara bat baino gehiagorekin eta ez hemen egiten den bezala» Atzerapen izugarria da batekin bakarrik lan egitea Amerikako ohiturak ondo ezagutzen dituen emakume honen iritziz. «Eta

muntaia bidean egitearena? Nik horrela egiten dut baina oso zaila da hemen ez dagoelako hori zuzenean egiterik, amerikarrek egiten duten bezala», esan eta «gainera askoz merkeagoa da», erantsi du sineste osos.

Izaera sendoko emakumea

Myriam Ballesteros ez da aukeraren zain egoten diren horietakoa. 1992. urtean M.B. Producciones sortu zuen. «Produzio independenteari buruzko master bat egin nuen. Orduan ohartu nintzen nire lana nik ekoiztu ezean beti norbaiten zain egon beharko nuela».

Momentuz ezin du besteen lanak produzitu: «Gidoi zoragarri bat ekartzen badidate agian bai, baina nireak ekoizteko ere arazoak baditut, nola

lagunduko diet besteei?». Egungo egoera hori izanagatik aurrera begira dituen asmoak bestelakoak dira: «Zineaz gain, telebistan ere produzitzea eta gazte hasiberriei laguntzea gustatuko litzaidake» adierazi digu.

Zine zuzendari askoren izenak entzuten dira azken boladan baina emakume gutxi dago horien artean. Arantza Lazkano eta Myriam Ballesteros besterik ez. «Ni telebista errealizadorea naiz eta ETBn nengoenean ere ni nintzen emakume bakarra. Oraindik bakar bat ere ez dagoela uste dut», jakinarazi du Myrimnek.

Lanaren latza oso gabi du Myriamek. Hori dela eta, «gizon zein emakume izanda, izaera sendoa behar-beharrezkoa da, ideiak garbi izan behar dituzu jendeak nahi duzuna argi jakin dezan». Alde horretarik ez omen du arazorik izan «ni ez bainaiz makala», esan du irri-farrez.

Agurtzeko orduan zinemagintzan laster emakume gehiagok ihardungo duelako itxaropena agertu du: «Estatu Batuetan eta, batzuk ari dira jadanik. Era berean, hemen ere gehiago ikusiko dugu berehala».

Leire Lopez de Aberasturi

EUSKARA AHOTIK AHORA



KOLDO MITXELENA INSTITUTOA GASTEIZ

Ikastola utzita hainbat
buru hauste
institutuak daude
Gasteizen hainbeste
batetikana bestera
nahikoa kontraste
Hemengoak gerade
jator eta gazte
Koldo Mitxelenara
Etorri zaitezte (bis)

Zortzi t'erditan sartu
hirutan atera
euskaraz mintzatzeko
baduzu aukera
Festak eiten ditugu
guk denok batera
egingo dizuegu
kristoren harrera
Etorri nahi baduzu
ez egin atzera

**AURREMATRIKULA
maiatzaren 4tik 18ra arte**



ORRIALDE HONETAN, hilabetero agertzen den pertsonaia, oso berezia da guretzat. Bera da aldizkari honen helburua: Gasteizko euskaldun bat, edozein, zu zeu ere izan zaitezke.

IÑAKI SANTAMARIA

-1957ko ekainaren lehengoarekin Lekeition jaio. Geminis, baina ez dio horoskopoari begiratzen.

-Hamasei urte daramatza Gasteizen, eta gustora da. Gustora ez izatera ihes joan zen honez gero.

-Ezkondua, bi seme-alaba dituzte: 12 urtekoa da Imanol, 7 urte ditu Maialenek. Gasteiztarra du emazte: Itziar. Doi-doia mintzo da, hau, euskaraz, atzenduxea edo du. Amaginarreba berriz, Otxandiokoa, oraino euskaraz hobeto konpontzen dena gaztelaniaz baino.

-Santa Lucian bizi da

-Auto-garajea du Adurtzan, Zumake-ra kalean: alegia, mekanikoa da. Aise hitzegiten du euskaraz, Lekeitioko bizkaieraz. Honenbestez, aldatu ditugu berezko duen hizkeran eman dizkigun erantzunak.

-Ibiltzea, mendia, bizikletan ibiltzea, palan jokatzeko, plate-tiraketan eta bestetan jardutea ditu afizioak.

-Oraindik ere, eta lantzean behin bada ere, Lekeitiko amak bidaltzen dizkion jaki goxoak jasotzen ditu; hainbeste arrain esate baterako: txitxarroa, oilar, txipiroiak (inoiz prestatuta ere bai)...

- Iñaki, *Maholo* dugu ezinez

Galdera: Duzun biziorik handiena?

Erantzuna: Erlojuak erosi, bizikleta ondo eduki, txandalak eta kirol zapatilak.

G. Bertutea?

E. Ona naizela, onegia igual. Batzuetan kaka burutik behera ere egiten didate. Beste batzuentzat txarra izango naiz baina...

G. Famatu adiskide baten izena?

E. Mauleon, Konpa zesta jokalaria, Axpe eta Arroiabe plater-tiralariak

G. Zer eskatzen du herriak?

E. Hainbeste gauza! lana eta...

G. Zer eskatzen diozu bizitzari?

E. Osasuna eta beharra; lana

G. Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

E. Gasteiz

G. Gasteiz ala Lekeitio?

E. Biak, Gasteiz eta Lekeitio. Gasteizen gehiago nago Lekeition baino, baina joaten naizenean gustora.

G. Jeniorik bai?

E. Jenioa? Bai, denean ez dut ateratzen, beti ez... irteten duenean, orduantxe gogorra. Ez, gogorra ez naiz, *tenplaua*

G. Momentuko kezkarik handiena?

E. Lana, negozioa

G. GEU elkartearen berririk bai?

E. Ezagutzen dut baina entzunda bakarrik. Ondo iruditzen zait.

G. Egunkari baten izena?

E. Euskaldunon Egunkaria. Zer esango dut, bada?

G. Telebista programa?

E. ETB asko gustatzen zait, biak.

Pelikula ederrak botatzen ditu.

Dokumentalak ere onak. ETB biak, nahiz euskaraz nahiz erdaraz.

G. Oporrak non eta zertarako?

E. Hementxe, Euskal Herian. Bizikletan ibiltzeko, deskantsatzeko, trankil egoteko, ondo jateko.

G. Etxeko lanak nork?

E. Andreak.

G. Nongo euskera duzu?

E. Nik euskara, Lekeitiokoa

G. Zerk ateratzen zaitu zeure onetik?

E. Gauza askok. Hipokresiak.

G. Jaki goxoren bat?

E. Niri gustatzen zaidana? Bixigua, angulak, bildotsa, arkumea, legatza... okela ere bai, txuleta ederrak.

G. Filmerik?

E. Ikusten dut, baina askorik ez.

G. Aktore izenik?

E. Kevin Costner asko gustatzen zait. Andreak? Kim Basinger, Cindy Crawford... Richard Gere ere.

G. Txikitako oroitzapen ederren bat?

E. Askok. Lekeitioko jokuak. Txapetan, tronpan, hondarrean futboleak;

bizikletan, mendira joan askotan...

errekuero politak; asko dauzkat.

* Barrak Lekeitioko jaietan, triopitxoian... ni abilena nintzen. Okerra ere bai. Gaiztokeria baino okerkeria.

G. Gorputz-atalik politena?

E. Nirea? Nik ez diet begiratzen gauza horiei. Niretzako, dena. Xilbuta (zilborra) daukat apur bat baina...

G. Ametsik?

E. Beti edukitzen duzu baten bat. Ezer ez faltatzea. Denetarik eduki apur bat.

G. Gizarte arloan, zer aldatuko zenuke?

E. Gauza asko. Esate baterako, ezer egiten ez duten gizon horiek eta kobratu asko. Horiek kendu, Diputazioak eta Aiumentatuak ere bai. eta barruan daudenak, erdiak baino gutxiago. Beste gauza asko ere bai baina.... Horiek: zantarrak, zantarkeria, lapurrak....

G. Denbora izanez gero, zer edo nora?

E. Ortutxo bat. Patatak, piperrak, tipulak... gauza horiek. Txakur bat ere bai. Gero, mendian ibili, bizikletan,....

G. Askok irakurtzen al duzu?

E. Gutxi, irakurriko nuen gehiago baina ez dut astirik

Miel Anjel Elustondo

Amaia Vazquez:

“Gizartean sexualitatea bere lekuan jartzeko ordua da”




Sexualitatea eguneroko gaia izan arren, sakonki gutxitan lantzen diren horietakoa dugu. Amaia Vazquez sexologoa dugu gai horren inguruan diharduten gutxietako bat. Berarekin izandako elkarrizketa bat abiapuntutzat izanik, gai hau gure neurrira aztertzen saiatuko gara.

**ZAILDU
EZAIGUZU**



"DISEINU ESCLUSIBO ETA
KALITATE BIKAINETZKO
BETAURREKOEN BILA NABIL"
MULTIOPTICA Sen Sara eta Berto
eustura eskusibook

"GARANTIA OSOA
ESKATZEN DUT"
MULTIOPTICA Sen garantaia
txartelak EUROPAko
3000 optiketan balio dizu.



**MENDIA OPTIKAN
ERRAZTUKO DIZUGU**

2.850 pta.



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
Andre Maria Plaza Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

“Gure jarrerak era jokaerak sexualitatearekiko tabu izaten jarraitzen dute, nire ustez”



Geu Gasteiz: Noiz hasi zinen sexualitatearen inguruko gaiak jorratzen?

Amaia Vazquez: Duela zazpi bat urte. Hasiera batean, lanean heziketa sexualari lotu nintzaion ikastolekin nituen harremanen bitartez. Garai horretan, oraindik, hori nahikoa berria zen; ordurako esperientzia piloto batzu besterik ez zen egin.

G.G: Zerk eraginda sartu zinen mundu horretan?

A.V: Lehenengo psikologia ikasi nuen. Sexualitatearen gaia betidanik interesatu izan zait, sarritan hizpide izaten dugun gaia da. Baina horri buruzko ezagupen maila eta batez ere bizipen maila oso eskasa da. Gure gizartean sexualitatea bere lekuan jartzeko beharra dagoela ikusten nuen, oso interesgarria baita sexualitatea pertsonen nortasunaren garapenerako.

“Gizarteari eredu sexual askatzaile bat eskeintzeko ordua da”

G.G: Sexualitatea tabu bat dela sarritan esaten dugu, egia al da?

A.V: Bai, noski. Dena den, bi maila bereizten ditut nik, hauexek: batetik, azken urteotan gutxinaka lortzen ari gara sexualitatearen inguruko informazioaren arloa betetzea. Gaur egun informazio emate hau tabu bat ez dela esan dezakegu. Hala ere, sexualitatea ez da informazioaren bitartez soilik lantzen. Bestetik, bizipenaren lanketa oso garrantzitsua da. Gure jarrerak eta jokaerak sexualitatearekiko tabu izaten jarraitzen dute, nire ustez.

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Benito
liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

G.G: Ezberdintasunik al dago gazte eta helduen artean sexualitateari dago-kionez?

A.V: Praktika sexualen frekuentzian ikusten da, sexualitatearekiko jarreretan ez. Adinen arabera sailkapen bat egingo nuke nik. Adoleszentzia garaian estereotipo sexual anitz errepikatzen dira, hau da, sexualitatean lehengo rola errepikatu egiten dira. Adin horretan neskak bildur diote oraindik bere sexualitatearen jabe izateari.

da neska eta mutilen artean, azken hauen balore matxistak direla eta. Dena den, nik horiei ez diet balore matxista deitzen, eredu falokratiko eta genitala baizik, non gizona behar eta desio sexualaren jabea den.

G.G: Zer egin beharko litzateke sexualitate arloko arazo guzti hauek behin betiko konpontzeko?

A.V: Gizarteari eredu sexual askatzaile bat eskeintzeko ordua da. Horretarako, sexualitatearen inguruko jarrera eta jokaera sakonki lantzen hasi behar dugu. Lan taldeak osatu behar dira gauza guzti hauetarako. Horrek proiektzio sozial bat izango du. Hori da bidea eta hortan ari gara lanean.

Olatz Irizar

“Hogei urtetik gorako gazteen artean estereotipo sexualak aldatzen doaz, ez ordea praktika sexualarekiko jarrerak”

Hogei urtetik gorako gazteen artean estereotipo sexualak aldatzen doaz, ez ordea praktika sexualarekiko jarrerak. Adibidez sarketak praktika sexual garrantzitsuena izaten jarraitzen du.

Orokorrean, gazteek errepikatu egiten dituzte helduen eskema sexualak.

G.G: Gure gizartean dagoen matxismoa sexualitatean isladatzen da?

A.V: Bai, jakina. Gaur egun fenomeno berri bat gertatzen ari da. Oraingo neskeei balore berri batzuek ematen dizkiegu, neskari gehienak badakite bere sexualitatearen jabe direla. Mutilei aldiz, ez dizkiegu balore berdinak ematen. Ondorioz, sexualitatearen arloan nahikoa baldatuta daude, ez baitaie esan lehengo eskemak ez dutela balio. Neskekin elkartzean ohartzen dira horretaz. Azkenean, desfase bat sortzen



BAGAREK SEXUALITATE tailer batzuek antolatu zituen martxoaren hasierarako. Tailer hauek atzeratu egin dira aste santua ondoren arte. Amaia Vazquezen eskutik horrelako tailer batetan parte hartzeko aukera dago oraindik ere.

Ikasle bakoitzaren bizipenak lantzea du helburu tailer mota honek. Zintzotasun lan bat egin behar du norberak eta bere buruari aitortu

dituen beldurrak, mugak... Hortik abiatuz, sexualitate tailerretan dinamika praktiko bat eramaten da. Jokuak, antzerkiak, psikodramak... egiten dira. Horien bidez, bakoitzak sexualitatearekiko dituen jarrerak isladatzen dira. Gauza praktikoak egiten dira eta etengabe ateratzen ari den materiala bakoitzaren bizipena da. Metodo hauen bidez bakoitzak dauzkagun mito, beldurrak eta abar kentzen saiatzen gara pertsona bezela osatu ahal izateko.



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia


Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

IBUSGAR'I
t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoiak, narruzko arropak,
berokiak eta lumazko aropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

Amerikako indioak gogoan Arabako lehenengo triptiko lehiaketan



Ameriketako herri indiarrei buruzko lehenengo triptiko lehiaketa martxan dago, Francisco de Vitoria Ikastetxeko Euskara Mintegiak antolatuta. Bertan IEE, LH eta BBBko lehenegoko kurtsoetako ikasleek har dezakete parte. Hizkuntza kontutan izango da lanen diseinu eta mezuarekin batera. Ildo horretan, euskara bultzatzea du helburu lehiaketa honek. Hori eta beste hainbat gauza argitzeko, antolakuntzan diharduen Jokin Larrañagarekin hitzegin dugu. Hona hemen gure solasaldia

«**LEHIAKETA HAU** eratu dugu euskarazko klaseak beren betiko ildotik joan ez daitezen, hor ez baitago komunikagarritasunik. Klaseak eta irakaskuntza pixka bat aktiboak nahi ditugu, ikasleei begira komunikagarritasun handiagoarekin eta askoz ere partehartzaileagoak». Horrela, Euskara Mintegiko partaide batzuek ikastaro batean zihardutela sortu zen ideia. Lehenengo hormairudi batzuk egin ziren, baina hizkuntza lantzeko triptikoa egokiagoa gerta zitekeelakoan, azken hau aukeratu zuten aurtengo kurtsoarako. «Ideia ikasleei gustatu zitzaientzen, berehala horretan burubelarri sartu



LUR HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOA

zure esku familia okarentzat baliagarria

FELIX QUINTANA MARTINEZ

☎ 25 13 80 (gauez)
GASTEIZ

LUR
ARGITALETXEA

★
I
Z
T
A
B
E
R
N
A
R
A
J
A
T
E
T
X
E
A

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

baitziren. Orduan zera esan genuen: zergatik ez dugu hau lehiaketa bat balitz bezala bideratzen? Eta halaxe egin dugu, bai gure ikastetxerako eta baita Araba-rako ere.»

Francisco de Vitoria Ikastetxeko ekimena izanagatik, eskeintza beste ikastetxeei luzatu zaie. «Gure ikastetxean antolatuta zegoen, eta besteei unitate didaktikoa banatu diegu. Guztira 36 ikastetxek hartuko dute parte Araba

osoan, ikastetxe publiko eta pribatuen artean.»

Parte hartzeko eginbeharrekoei dagokionez, folio edo kartulina itxurazko triptikoetan aurkez daitezke lanak, betiere apirilaren 14a baino lehenago. Triptikorik hoberenak hilaren 18tik 29ra bitartean Europa Gizarte Etxean izango dira erakusgai. Bertan emango da epaimahaiaren emaitza hilaren 20an. Lehen esan bezala, euskara maila oso kontutan hartuko da lehiaketan nola sari banaketan; hain zuzen ere, eta beste sariekin batera, HABE eta AIZU aldizkarietako hainbat harpidetza emango zaizkie txapeldunei. Honez gain, ikastetxe onenari sari aparta bezala MACINTOSH ordenagailu bat oparituko zaio.

Jokinek esan digunez, ikasleen erantzuna harritzekoa izan da, eta arrakasta jada ziurtzat eman daiteke. «Nik uste dut helburua lortzen ari garela, Euskal Herri osora zabaltzeko aukera ere egon daiteke»

Hala izan dadin espero dugu, horrelako ekimenek euskara eta euskaltzalegoa sendotzen laguntzen baitute. Doazela, bada, hemendik gure zorionik beroenak. Irabazle bakarra egongo da: euskara.

Asier Perez de Karkamo



FILTON
FILTON
FILTON

FILTON
FILTON
FILTON

Barrancal, 20 (Plaza) • Barrenkalea, 20 / Tel. 14 68 43
01001 GASTEIZ

**ESPERANTO
ELKARTEA**

informa
zaitez!

Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)

ARABAKO 1.GO TRIPTIKO LEHIAKETA

**AMERIKAKO
INDIOAK**

Apirilak 14a arte

**1.go maila I.E.E.,
L.H. eta B.B.B.ko
ikasleei**

Antolatzailea:
**FCO. DE VITORIA
IKASTETXEKO
EUSKARA
MINTEGIA**

HONTZA Gazte musika

Les mecaniciens

bitxi- bitxiak



«**EUSKADI, JENDE GUTXI** eta denok erdi lehengusu, arraza behar da nahastu». Bi bertso hauekin irekitzen da Les Mecaniciens taldeak duela hiru bat hilabete kaleratu zuen diskoa: «Euskadi jende gutxi» izenekoa, hain zuzen ere.

Hogeitamar minututan, lan berri hau osatzen duten bederatzi abestitan, Euskal Herriko musika arloan batere arruntak ez diren hitzak zein doinuak aurki ditzakegu. Diska honetan, gainera, Les Mecaniciens taldekoek proposamen zehatzak eskeintzen dizkigute: gure buruari kritika egin beharra, hitzaren indarra berreskuratu nahia.

Musika mota ezberdinetan murgiltzen gaituzte neska-mutil hauek. Reggae-ari heldu, jazz-arekin jolastu, Afrikako erritmoekin

gi-ro ezin alaiagoa sortu edota Pop lasaian aritu, Les Mecaniciens taldeak ez du inolako ara-zorik. Pentsamendu eta belarriak zabaltzeko moduko musikariak ditugu.

Egia esan, kolaborazio galantak ere izan dituzte LP bikain honetan. Ezin ditugu Iñaki Irazu eta Atxagaren bertsoak ahaztu, ezta Maite Aseginolazak egindako haize moldaketak ere. Esan beharra dago ere, komentatutako guzti hau Jon Zabaletak marraztutako azal eder baten barruan aurkituko duzula.

Behin eta berriro saiatu diren arren, agian oraindik ez dute lortu gazteok kontsumitzen dugun musika sailan sartzerik. Hala ere, -eta bere kontzertura hurbiltzen direnak oso gazteak ez direla jakinagatik- pixkanaka pixkanaka haien lana zabalduko delakoan gaude. Bestalde, krisialdiak sortu duen beherakada eurek ez dute ia nabaritu; izan ere, kontzerturik orain arte ez zaie faltatu. Horrela jarraitzea opa diegu!

«Euskadi jende gutxi» diska etxean baldin baduzu, eseri eta erlaja zaitez. Noizko Gasteizen? Batek daki!

Joxemari/Txabi Arnal Gil

LIBURUAK



HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOKO HIZTEGIA

Ibon Olaziregi, Jose Mari Berasategi eta Mikel Zalbide
291 orrialde

Euskara Zerbitzua
Hizkuntz Prestakuntza
EUSKO JAURLARITZA

BIGARREN argitaldi honek Hezkuntza arloan egon diren aurrerapen eta aldaketek sortutako lekua bete nahi izan du. Izan ere, 1987ean izan zen lehenengo argitalpena. Geroztik urte batzuk igaro dira. Hezkuntza munduan dextente aldatu dira hitz eta kontzeptuak. Guzti hau dela eta, ezinbesteko hiztegia duzu hezkuntzan zabalitzen guztiok.



FAGOR




**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37
Tfnoa: 25 45 88
Faxa: 27 81 93
01005 - GASTEIZ



Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ



JOKOA



KLASETIK ATERA ONDOREN atzerritar batzuk ikusi dituzu kalean, bapatean haietako bat zuregana hurbildu eta Euskal Herriko leku batzuk non dauden galdetu dizu.

non dago?

- | | |
|------------------------------|-----------------|
| 1- Butroneko gaztelua | • Araban |
| 2- Ziburu herria | • Gipuzkoan |
| 3- Udala mendia | • Bizkaian |
| 4- Mauleon ibaia | • Zuberoan |
| 5- Urepele herria | • Nafarroan |
| 6- Hermua herria | • Behenafarroan |
| 7- Arga ibaia | • Lapurdin |

ATZERRITAR LAGUNAK, eskerrak eman ondoren, Euskal Herriko mapa batean honako datu hauek ikusi dituela esaten dizu:

Euskaldun kopurua 1986 eta 1982 urtetako datuekin. Zure lagunak, badaki orain euskaldun gehiago garela (batez ere Araban eman da hazkunde handiena)

Hala ere berak ez daki datuok zein probintzari dagozkio.

lagunduko al diozu?

ERANTZUNAK

Butroneko gaztelua (BI): Ziburu herria (BE); Hermua herria (ARABA); Arga ibaia (NA)
 Mauleon ibaia (ZU); Urepele herria (LA); Udala mendia (GI); Behenafarroa: %68,2; Lapurdi: %48,2; Araba: %6,7; Gipuzkoa: %43,7; Zuberoa: %53,7

Euskaldun kopurua

Herrialdea

%17,5	
%10,2	
%89,2	
%48,2	
%9,7	
%43,7	
%53,7	

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
 Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

Lurra salbatzeko zeuk egin ditzakezun **50** gauza erraz

Esku artean duzun aldizkaria, irakurri ondoren ez baduzu gordetzen, ez ezazu zakarrontzira bota, papera jasotzeko dauden kontenedorera botaz gero, lurra salbatzen lagunduko duzu.

Txalaparta argitaletxeak kaleratu duen liburu hau, guztiz praktikoa da. Arazoak planteatzeaz gain, konponbide samur batzuk eskaintzen baititu. Esaterako, ba al dakizu gaurregun munduan zenbat beirazko botila edo flasko erabiltzen diren egunero? 28.000 miloi. Jakina, askoz merkeagoa eta hobea da beira hori berziklatzea, alde batetik ez duelako kontaminatzen, eta bestetik ingurugiroa gutxiago hondatzen delako.

Edo plastikoa? Ba al dakizu zenbat kilo botatzen dituzun urtero? Ba, batzuek, urtero 27 kilo botatzen ditugu europar bakoitzak. Zakar horrek 100 urtetik gora behar du desegiteko, horregatik askoz ekologikoagoak dira paperez edo beiraz batuta dauden produktoak.

Zuk, zure eguneroko gauzetan, ura dariola utzi gabe, basoan zakarra bota beharrean etxera ekarri, papera ongi erabiliz,... zuk ere parte har dezakezu mundu hau hobetzen.

Gaur aurkeztzen dizuegun liburu honek 50 gauza erraz proposatzen dizkizue, baina ziur gaude horietaz aparte zeuk ere beste 50 asmatuko dituzuela. Lurraren etorkizun orain eraikitzen ari baikara. □



HONA HEMEN liburuan agertzen diren zenbait galdera:

1- Zenbat aldiz birzikla daiteke aluminiozko lata bat?

- a-ezin da
- b-behin bakarrik
- c-behin eta berriro

2- Zenbat plastikozko botila erabiltzen ditugu lau egunetan?

- a-kamioi bat betetzeko adina
- b-biltegi bat betetzeko adina
- c-300 miloi.

3- Zenbat tetra-brik bete daitezke 5 minutuko dutxa batean gastatutako uraz?

- a-5
- b-15
- c-50

4- Zenbat oihan tropikal desagertzen da minutuko?

- a-aparkaleku bat betetzeko adina
- b-zinema-areto bat betetzeko adina
- c-50 futbol-zelai betetzeko adina.

5- Zer nolako eremua bete daiteke European urtero mozten den gabonetako zuhaitz kopuruarekin?

- a-aparkaleku bat
- b-auzo bat
- c-bi mila metro karratuko baso bat.

(Kasu guztietan erantzunak "c" ziren.)



MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK
Santiago kalea, 39
☎ 26 09 82

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2errikoia

Munduko txirrindularirik onenak euskal errepideetan



Euskaldunok kirolzale amorratuak gara. Nori ez zaizkio futbola, saskibaloia edota mendia gustatzen?. Txirrindularitza dugu adibide garbia. Euskal Herrian txirrindulariekiko dugun grina berezia da. Munduko puntako probetan zalego euskalduna nagusi izaten dugu beti, eta nola ez, gure Itzulia munduko garrantzitsuenetariko bat da. Aurten urrutiago joanez, berezko taldea dugu, "Euskadi" izenekoa, eta guztiok Gasteizen gure idoloak txalotzeko aukera edukiko dugu Apirilaren 5ean.

Gure artean dira berriz ere bideetako langileak. Apirilaren 4tik 8ra kolorez beteriko tropelak Euskal Herria zeharkatuko du, eta hortxe, munduko txirrindularirik onenak ikusteko aukera izango dugu. Ondorengo izenak entzun besterik ez dugu behar: Tony Rominger (azken bi urteotako txapelduna); Miguel Indurain (eguraldi onak lagun, Arrasateko irteeran egongo dena), Claudio Chiappucci, Zenon Jaskula, Piotr Ugrumov, Erik Breukink, Franco Chioccioli, Munduko txapelduna den Armstrong, eta abar luze bat. Laburtuz,

Mulumia
MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

AZOKA

deportivos

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 27
 Ariznabarra 17

tfnoa: 24 22 05
 tfnoa: 14 71 33

“ Munduko probarik garrantzitsuenetarikoa dugu Euskal Herriko Itzulia ”

maila goreneko 20 talde, eta guztira 160 txirrindulari. Lasai asko esan daiteke, batetik, Euskal Herriko Itzulia, partaidetzari dagokionez, orain arteko onena izango dela, eta bestetik, aurrean munduko probarik ezagunenetarikoa bat dugula, eta zalentzarik gabe, Estatu espainoleko garrantzitsuena.

Euskal Itzulia bost etapa ditu (868 km., guztira). Azken urteotako ohiturari jarraituz, hauetako bat gure hirian bukatuko da. Apirilaren bostean guztiok Gasteizko Hiribidean dugu zita, beraz. Minutu bat gora, minutu bat behera txirrindulariak arratsaldeko lau t'erdietan iritsiko dira Gasteizera.

Jakina da Euskal Herriko Itzulia go-gorra dela, eta noski, aurtan ez da aldatuko. Goizero goizero bi gupilen gai-

neko kirolariak zeruari begira altxatzen dira, hotza, euria, edota elurra ez baitira txirrindularien lagunminak. Horretaz gainera, euskal errepideek gora eta behera egiten dute etenik gabe. Aurtengoan 20 mendate izango dira ibilbidean (hirugarren mailako 13, bigarreneko lau eta lehenengoko hiru), eta aurreko hamarkadan bezalaxe Ibardin ena aituko den etapa izango da Euskal Herriko Itzuliko etapa erregina.

Tony Romingerren etsaiak

Tony Rominger suitzarra izan da gure Itzuliaren azken txapelduna. Clas-Mapei taldeko txirrindularia Juan Fernandez arabarraren aginduetara dago, eta orain egun batzuk Paris-Niza lasterketa irabazi eta gero Euskal Herriko Itzulian garaipena eskuratzeko faborito nagusia dugu. Atarrabiakoa, Indurainez ari gara noski, iteera puntuan baldin badago, euskal zalegoak morboz beteriko norgehiagoka ikusiko du. Bideetan gora egiteak mesedea egiten dio Romingerri, eta azkenengo etapa ere, krono-igoera, ondo datorkio. Alabaina, Miguel Indu-



rain Miguel Indurain da. Hortaz, guztiok prest ikuskizuna gozatzeko.

Nafarra ez badator, gainontzeko txirrindulariak ez dira inolaz ere makalak. Beraz, Euskal Herriko Itzulia berriro ikusgarria izango dela ziurtatuta dago.



Etapaz guztiak arriskutsuak dira, baina laugarrenak, Balmasedatik Ibadinera bitartekoa, karrera hankaz gora jar dezake. Egun horretan egin beharreko lana handia izango da, 228 kilometro eta etapako azken txanpan lau mendate, lehenengo mailako Jaizkibel eta Agina, eta bigarreneko Aritxulegi eta Ibadin, ez baitira txantxetakoak izango. Hemen gakoa egon daiteke, 1991an bezala, Claudio Chiappuccik urrutitik eraso egingez, lasterketaren baretasuna hautsi zuenean.

Euskal Herriko Itzulia ia beti azken metroetan erabakitzen da, eta aurrean ere hala izango dela ez du inork zalantzan jartzen. Antolatzaileek badakite hori, eta amaitzeko plater goxo bat jarri dute, Eloisagarako krono-igoera hain zuzen. Azken igoera hori erabakiorra izango da beraz.

“Euskadi” taldeko erronka


Arrasaten hasi, eta Eloisagan bukatzen den XXXIV. Euskal Herriko Itzulian honako talde hauek ikusi ahal izango ditugu: Euskadi, Clas-Mapei, ONCE, Banesto, Kelme, Deportpublic eta



Artiach, estatuari dagokionez; GB-MG, Gewis, Carrera, Jolly, Mercatone eta Bresciali italiarrak; Lotus, WordPerfect eta TVM holandarrak; Estatu Batuetako Motorola; Gan frantsesa; Telekom alemaniarra; eta bukatzeko, Lotto belgiarra.

“Azken metroetan erabakitzen da ia beti Euskal Herriko Itzulia”

Hor dugu Munduko talderik onenen artean gure “Euskadi”, bere zalegoaren aurrean aurkezpena egiteko prest. Euskal jarraitzailegoa munduko onena da, horren argitarako Tourra Pirinioetatik igarotzean bide ertzeetan egon ohi den euskaldunen kopurua baino ez. Euskadi taldea ez da talde arrunta, horretan ez dago publizitaterik, ezta merkatal asmorik ere; helburua argia da: euskaldunok talde bat izatea, eta horretarako,



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

**Cervecería
Alemana**

SALTIXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

“Zeruari begira altxatzen
dira goizero txirrindulariak
Euskal Herrian”

zalegoak berak jarri du dirua mahai gainean, ez beste inork. Euskadi taldeko txirrindularia den Murgialdaik esan digun bezalaxe, Euskal Herriko Itzulia euren proba denez, ezin dute etxean hutsik egin.

Bestalde, arabarrok badugu herrikiderik “kolore anitzeko suge” delakoaren baitan, besteak beste hauek: Jon Untzaga, Javier Murgialdai, Gonzalez Salvador, Alvaro Gonzalez de Galdeano... Ikus dezakegunez, Arabak txirrindulari onak ematen jarraitzen du. Badakizue, Apirilaren 5ean Gasteizko Hiribidean duzue elkargunea, eta bertaratzerik ez baduzue, lasai egon, datorren urtean ere Euskal Herriko Itzulia Gasteizera iritsiko dela erabaki baitute dagoeneko.

Ismael Diaz de Mendibil

EUSKADI taldea eta Euskal Herriko itzulia

LEHENENGO ETA BEHIN, Euskadi taldeak Euskal Herriko Itzulerako duen helbururik nagusia azalduko dizuet, gainetik bada ere.

Euskal Herriko Itzulia, berez, helburu nahiko serio dela kontutan hartuz, prestaketa fisikoak dexente aurreraturik egon behar du lasterketaren ordurako. Izan ere, %100ean egoten saiatu behar dugu ahalbait ondoen ibil gaitezen. Euskadiko zaletuek sostengua eta babesa eman digute ekimen honetan eta, jakina, garaipenen bat edo beste eskuratu nahi dugu.



Gure taldean morala oso goian daukagu. Txirrindulariok oso ondo gabiltza eta, dudarik gabe Euskal Herriko Itzulia guretzat itzuli “berezia” da.

Javier Murgialdai
Euskadi taldeko txirrindularia

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



**LURRALDEKO
HARAGIAK ETA GOI
MAILAKO
TXARKUTERIAN
ESPEZIALDUA**

ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Etxeko odolkiak
AIZPEOLEA
Lurraldeko haragiak
Etxeko txorizo, gazta eta
pateetan espezialduak

PARAGUAY 17
☎ 26 78 97
GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**
HARATEGIA



Gure Lurraldeko haragi
samurrak.

Idi, zekor, txahal, arkume
eta abar.

Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3

Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

Gure lurraldeko zalditi ta
muxalen haragitan
espezialdua.

Aukerarik zabalena
kalitaterik onena

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

IRRI eta FARRA

SAIL HONETAN gaurko eta atzoko txistEEK zein pasadizu farregarriek dute lekuri. Etxean, klasean, lagunartean... entzun duzun demasako txiste hori orri hauetan argitaratzeko aukera ematen dizu GEU GASTEIZ aldizkariak,.. Horretarako gure helbidera gutuna bidali besterik ez duzu:

GEU GASTEIZ
1691 postakutxa
GASTEIZ

GURE ORAINGO txiste kontalaria Marzelino Soroa da, Donostiarra jaiotzez. Aurreko mendearen erdialdean sortua eta oraingoaren hasieran hila.

MARZIAL ZIKIN makal zebilen. Joan zen sendagile batengana eta honela galdetu zion:

- Zein ur izango litzateke niretzat ona?
- Ura, edozein, jaboia da zuk behar duzuna, ona eta ugaria gainera.

☆☆☆☆☆

GOIZEKO hiruretan Joxe Berekalte, etxera etorri zen joz leiho eta ate. Andreak garraisika ekin zion honela

- Hau al duk etortzeko ordua?
- Josiek erantzun zion:
- Non nahi zenuen, maite, egotea, tabernak itxita badaude!.

☆☆☆☆☆

ARDOAREN gainean gauza bat esanik, neure buru gogorrean ezin dut sartu nik:

- Gizona zuzen bada baso bat edanik, ni, berriz, bost edanda ezin naiz zutik egon

-MUTIL, ohean al hago, artean hamarrak eta?

-Eta zer, gaur hiruretan oheratu baldin banauk?

-Goizeko hiruretan? Zer gauza harrigarria! Ni ez nauk oheratu, eta negok dagoeneko jaikita.


☆☆☆☆☆

INTXAURREKO Klemente bere etxejabeak berarekin bazkaltzen geldutuarazi zuen behin. Oilanda eder, guri, urre koloreko bat ekarri zuten mahaira, eta galdetu zion etxeako andreak:

-Klemente, oilanda honetatik zer jan nahi duzu?

-Burua ez beste guztia

☆☆☆☆☆





ONGI ETORRI MENDEBALDERA! MENDEBALDEA

Antzezlan. Kollins Clown antzerkia taldearen eskutik. **Apirilak 10, Goizeko 12,30etan Principal Antzokian**

Helduak: 600 pta • Haurrak eta gaztetxoak: 300 pta.

☆☆☆☆☆☆

EUSKARAREN GARAPENA GASTEIZEN

Mahaingurua
Apirilak 12, arratsaldeko 7 t'erdietan Judimendiko Gizarte etxean.

☆☆☆☆☆☆

Pablo Soroza balen KATIUSKA ZARTZUELA

Manuel Iradier Abesbatza
Apirilak 15 eta 16, arratsaldeko 8etan Principal Antzokian.

Sarrerak: 1.000, 1.200 eta 1.500 pta

☆☆☆☆☆☆



BENITO LERTXUNDI

Kantaldia

Apirilak 19 arratsaldeko 8 t'erdietan Principal Antzokian

Sarrerak: 500, 800 eta 1000 pta.

☆☆☆☆☆☆

IBILBIDEA GASTEIZKO ALDE ZAHARREAN ZEHAR

Erdi Aroko eraikuntzak eta artelanak ikusteko (azalpenak euskaraz izango dira)

Apirilak 21, goizeko 9 t'erdietan Landatxo Gizarte etxean

☆☆☆☆☆☆

ORAIN DELA... 25 URTE

Amets taldearen disko berria. Aurkezpena

Apirilak 24, arratsaldeko 7 t'erdietan Principal Antzokian.

Sarrerak: 500 pta (CD-rekin batera 1.500)

☆☆☆☆☆☆

Onformatu nahi zaitugu. Bidali iezaguzu euskaraz antolatzen duzun guztiaren berri. Eskerrik asko!



SAN PRUDENTZIO ESTIBALIZKO AMA

BERTSO SARIKETA

FINALERDIA:

Apirilak 16, larunbata
arratsaldeko 7,30etan

IZARRAKO
Frontoian

FINALA:

Apirilak 24, igandea
goizeko 11,30etan

GASTEIZ
Kultur Etxean
(Florida parkea)

ANTOLATZAILEA:

**ARABAKO
BERTSOLARI
ELKARTEA**

LAGUNTZAILEA:



BABESLEA:



ERAKUSKETAK



Luis de Ajuria Aretoan (General Alava 7).
Apiralen 15tik Maiatzaren 3ra arte IZAKUN
RIOS Pintura.

San Prudentzio Aretoan (San Prudentzio 30).
Maitzaren 8a arte BASERRIAN BIZI Erakusketa
etnografikoa.

Araba Aretoan: (Dendaraba).
Apirilaren 15tik maiatzaren 1a arte. GORKA
ARANBURU, IÑAKI RODRIGUEZ, MIKEL GARATE,
GORKA EIZAGIRRE ETA IBON ARANBERRI.
Pintura

Olagibel Aretoa: (Enparantza berria)
Apirilaren 15a arte. ARABAKO ALFARERIA.

Cordon Etxea: (Cuchilleria 24)
Apirilaren 11tik 30ra. XI ESKOLARTEKO
KOMIK-ERAKUSKETA.

CM2: (Alava Jauregia. Herreria 24)
Apirilaren 15tik maiatzaren 21a arte
CARMEN LOPEZ CASTILLO

EPHIALTE aretoa: (Marques de Urquijo 18)
Maiatzaren 31 arte «El ruïnismo clásico a
través del grabado en los siglos XVI al XVIII)

VillaSuso: (Matxete Enparantza)
Apirilaren 15tik 24ra. **EKIN EUSKARARI.**
Euskararen gizarte-normalizazioari buruzko
erakusketa.

Kultur Etxea: (Florida pasalekua, 9)
Apirilaren 16 arte. SAN PRUDENTZIO-KARTEL
LEHIAKETA. Apirilaren 18tik 22ra. ARGAZKI
ERAKUSKETA. Apirilaren 25tik Maiatzaren 7a
arte. SAN PRUDENTZIO ARGAZKI-LEHIAKETAREN
ERAKUSTALDIA

APIRILAK 28

PRUDENTZIO DEUNA



APIRILAK 22 •

Ostirala 19,30etan
Principal Antzokian
PREGOIA.
M Angeles Cobas-en
eskutik

APIRILAK 27

Prudentzio
Deunaren omenezko
bezperak San Vicente
Elizan
ERRETRETA

APIRILAK 28

Meza San
Prudentzioko
Basilikan
Erromeria

eta gainera
kale animazioa eta
giro ezin hobea.

ERRETRETA


Txun-txunarekin
turuten doinua
Gure zaindariaren
eguna (bi aldiz)
Arabatarrak egun
honetan elkartzen dira
alaitasunez
ospatutzeko
Prudentzio jaiak
gure patroï haundia.

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

JATETXEA



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

“UPELA” MOTRI

SAGARDOEGIA • ZALDITOKIA

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

1. Maitealeak. 2. Zingira. Erle
hitz deribatuetan. 3. Pelotoi.
(Ald.) Lortu
aditzaren infinitiboa. 4. (Ald.)
Euskal fonema bat. Lehena.
Aihara. 5. Azeri txiki.
Tarragonako autoetan.
Boroa. 6. Atomo elektrikoak.
Txitxardina. 7. Marokoko
hiriburua. Nora atzizkia.
Azkena. 8. Uranioa. Uretan
nahiz aidean ibiltzen den
hegazti. Bizkaiko herririka. 9.
Kanpo. Klaseak. 10.
Juntagailu. Lehena. Agur.

7 eskapan



SUKALDE TXOKOTIK

GAUR EGUNGO sukaldaritzan plater azkarrak eta ederki hornituak nagusitu badira ere, gure aintzinako euskal sukaldaritzaz ez da bazter uztekoa, ez eta gutxiago ere. Merke eta bapo jaten bazekiten eta badakite oraindik ere gure herrietan eta baserri zuloetan! Hona hemen euskal tradizioan errotutako adibide eder eta goxoa. On egin!

EUSKAL POSTREA

(gâteau basque)

Osagaiak:

Orea egiteko

- Irina: 450 gr
- Arraultzeak: 3 gorringo eta arraultze oso bat (zuringo eta guzti)
- Azukrea: 300 gr
- Gurina: 300 gr
- Gatza
- Limoi baten azal xehetua

Orearen betegarria den krema egiteko

- Esnea: 22 goilarakada
- Irina: 8 goilarakada
- Arraultzeak: 3 gorringo
- Azukrea: 80 gr
- Rona: 4 goilarakada
- Gatza

Nola egin:

Orea: Ipin mahai gainean 450 gr. irin borobil bat eginez. Borobilaren erdian honako hauek paratu: 300 gr. azukre, 300 gr. gurin, hiru gorringo, arraultze oso bat (zuringoa eta guzti), gatz pittin bat eta limoi baten azal xehetua.



Kontu handiz oratu dena, luzeegi ez baina. Ondoren, osagai horiez pilota bat osatu eta esku zapi batez estalita eduki hurrengo egunera arte.

Orea betetzeko krema: Ipin eltze txiki batean 80 gr. azukre, 8 goilarakada irin eta hiru gorringo. Jarri eltzea ezari-ezarian berotzen eta tresna batez irabiatu. Nahasketa epel dagoenean, hozberoaren maila handitu eta apurka apurka gehitu 22 goilarakada esne bero (etenik gabe irabiatu behar da bitartean). Irakiten hasten denean, gehitu 4 goilarakada ron. Guzti horrek irakin behar du poliki-poliki hiruzpalau minutuz. Geroago sortuko den krema gorde hurrengo egunerako.

Euskal postrea: Krema eta orea bezperan egin eta gero, zirkunferentzia 26 zm. (gutxi gora behera) eta altueran 3 zm. dituen molde bat lortu. Orea arrabolaz zabaldu eta arrabola, mahaia eta orea irinaz hautseztatu, lodiera zentrimetro erdikoa izan arte; moldearen hondoa estaliz gero tartaren oinarria aterako da mahaiaren gainean indar egiten badugu. Oinarri osoa estalirik egongo da horrela. Orea ebaki moldean sartzeko. Lau zm.-tako altuera eman. Gero, moldea kremaz bete eta arrabola gainetik pasa. Azkenik, arraultze irabiatuaz igurtzi moldearen gainekaldea eta labea sartu. Ordu erdiz hor eduki ondoren tarta moldetik atera eta mahaira eraman; edozeinek sabeleratzeko prest egongo da orduan.



Bacalao Giraldo

•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



MI- RA- RIA



KAIKO, SEME! "PENTXO DEUNA" NAIZ, ETA BERRIZ, ZU-
EN ARTEAN NAGO FEDEA
BERPITZEKO... AUKERATUTA
IZAN ZARA, BEHARTSUEN
ARTEAN, NERE BERRI OS-
PETXUA ZABALTZEKO

HARTU... 500
KILO BARRASKILO ETA
PERRETXIKO, JENDE BEHARTSUA
NERE EGUNA POZIK OSPA-
TZEKO...

ETA ORAIN JO-
ANGO NAIZ. LASAI NOA;
BADAKIT NERE NAHIA
BEEKO DUZUA...



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	





Lortu azkar zure TeleCaja Joven
ala honela geratuko zara!!!

Linea Gaztea
Caja Vital Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioaren bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrek egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.